

FUTBOLA

Munduko

III. Rugby Txapelketa

Alavesek 300 milioi pezetako aurrekontua nahi du

DONOSTIA

Bigarren A mailara igotzea lortu eta gero, datorren denboraldirako 300 milioi pezetako aurrekontua izatea aztertzen ari da Alaves. Gonzalo Anton lehen presidenteordeak azaldutakoaren arabera, «kopuru handi hori betetzea posible izango da, egungo 3.000 abonatueta-tik 8.000ra igotzea espero baitugu, eta gainera Caja Vital Kutzaren laguntza izango baitugu».

Hamabi urte bigarren A maila baino beharagoko mailatan jardun ondoren, aurrekontu horrekin Alavesek apustu gogorra egingo du datorren denboraldirako. Hain zuzen, datorren urteari begira egon daitezkeen bajak eta altak ezagutzeko, oraindik «azkarregi» dela azaldu zuen Gonzalo Antonek, baina zortzi bat izatea espero duela aurreratu zuen.

Bestalde, Emilio Quílez futbol jokalaria, entrenatzaile eta prestatzaile ohiak, 'Leyendas del fútbol alaves' liburua aurkeztu zuen atzo goizean Gasteizen. Liburua Arabako Foru Aldundiak argitaratu du, eta 1920. urtetik Arabako futbolearen protagonista izan diren hainbat kontu biltzen ditu.

REALAK BABESLE BERRIAK Realari dago-kionez, oster, datorren denboraldira aurrera, eta hiru urtez, Krafft izango da talde txuri-urdinaren kaptainaren babesle ofiziala. Gainera, datorren urtetik aurrera, eta hiru urtez, Gipuzkoako Poliklinikak babestuko ditu Realeko talde guztien entrenamenduetako janzkiak. Eta, datorren urtean hasi eta bost urteko epean, Kutxa izango da klubaren finantza erakunde ofiziala.

Hristo Stoitskovek bestalde ez du datorren urtean Barcelonan jokatu, atzo Johan Cruyffek prentsaurrekoan jakinarazi zuenez. Nahiz eta Cruyffek orokorrean ontzat jo zuen Stoitskovek Barcelonan egon den urteetan egin duen lana, aurrelari bulgariarrak eman dezakeena eman duela uste du. «Ustedut gauzak argi geratu zirela presidentearekin ostegunean egindako bileran».

Hego Afrika munduko onena

15-12 irabazi zion luzapenean Zeelanda Berriari, Stranskyren Dropari esker

15 HEGO AFRIKA:

Du Randt-Rossow-Swart, Wiese-Strydom, Piennar-Andrews-Kruger, Westhuizen-Stransky, Williams, Le Roux, Mulder, Small, Joubert. Pagel Swarten orde (68. minutuan), Venter Smallen orde (97. minutuan).

12 ZEELANDA BERRIA:

Dowd-Fitzpatrick-Brown, Jones-R. Brooke, Brewer-Z. Brooke-Kronfeld, Bashop-Mehrtens, Lomu, Little, Bunce, Wilson, Osborne. Joseph Breweren orde (41. minutuan), Ellis Wilsonen orde (55. minutuan).

PUNTUAK: 0-3: Mehrtens zigor kolpea (5 min). 3-3: Stranskyren zigor kolpea (11 min). 3-6: Mehrtens zigor kolpea (14 min). 6-6: Stranskyren zigor kolpea (22 min). 9-6: Stranskyren drop-a (32 min). 9-9: Mehrtens drop-a (55 min). 9-12: Mehrtens zigor kolpea (81 min). 12-12: Stranskyren zigor kolpea (90 min). 15-12: Stranskyren drop-a (93 min).

KOLDO AIDUNTZIN / DONOSTIA

Hego Afrikak gehienon pronostikoak pikutara bidali zituen, eta faborittoa zen Zeelanda Berriari merezimenduz irabazi. Johannesburgeko Ellis Park zelaiaren ezinezkoa gertatuko zitzaien, atzo, Springboksak mendean hartzea. Lehen zatian bere jokoa egitea lortu zuen, aurrean sendo, bizi eta agresibitate handiz jokatu, eta atzean defentsa zorrotza eginez eta Stransky zein Jouberten hanka bikainean oinarrituz.

Alboko sakeetan ere nagusi ziren etxeok. Bazirudien zeelandarrak bigarren zatian zain zeudela garaipena patrikaratze-ko, baina ez genituen aurreko partiduetan bezain dinamiko eta sutu ikusten. Hirugarren lerroa ez zen iristen hain azkar. Ez genituen Kronfeld eta Zinzan Brooke betiko neurrian ikusten, eta Lomu berriz, oso kontrolatua zegoen. Mehrtens ari zen jokoa gidatzen ostikoz.

Lehia arratsaldeko 15.06etan hasi zen Mehrtens sake motzarekin. Zinzan Brooke zeelandarrak eta Joubert Hego Afrikako atzelariak lesionatuta jokatu zuten. Aurreneko 10 minutuak tentsio handiz eta elkarki presio izugarria eginez bete ziren. Minutu horietan bi joko zabaltzaileen lehia estua izan zen defentsatik urruntzeko, erasoko goitikako ostikadetan zein hagetarako jaurtiketetan. Springboksek ondo aprobeztatu zuten aurrean zuten 75 kiloko aldea.



Zeelanda Berriak (irudian Osborne) ez zuen eskura jokaterik lortu bigarren zatian.

EFE

Entseurik gabeko finala

K.A. / DONOSTIA

Munduko txapelketako finalari entseia falta izan zitzaien festa biribiltzeko. Ellis Park katedralean 65.000 ikusle, tartean Nelson Mandela estatuburua. Lehiaren hasiera hunkigarria, bi hamabostekoak ilaran ereserkiak entzuten.

Espero bezala, Zeelanda Berrikoek euren Haka dantza egin zuten. Amaieran bi jokalaria beltz hego afrikarren parean jarri ziren, lehiarako mehatxu eginez. Ez genuke aipatu gabe utzi nahi Morrison epaile ingelesak egini-

Zigor kolpe bana gauzatu zuten, zeelandarrak hasi zirelarik aurretik markagailuan 0-3. Lehen jokaldi arriskutsua zeelandarrekin egin zuten 14. minutuan. Alboko sakea aldeko zuten All Blacksek; bi eskuez jaso Jonesek, eta atzekoen jokaldi prestatuan, gurutzaketak egin, Lomuri luzatu, eta ohiko indarrarekin sartuz metro ugari aurreratu zituen. Ez zen entseu lorraino

ko lan ikaragarria partidua zuzentasunez eramateko. Rugbya gogorra da, baina, atzoko kiroltasunez jokatu gero, ikusgarria gertatzen da.

Zeelanda Berriak txapelketa bikaina egin du, baina azken neurketan kontrarioa nagusitu zaio. Norvegiagokan zehar, beltzen erritmo bereziko kantuak entzun ziren, itxura zoragarria emanez festari. Laburbilduz, Hego Hemisferiokoak nagusi dira oraindik eta nagusi izango beste lau urtez. Atzo, zuriek eta beltzek bat egin zuten; aurrerantzean, ezin jakin.

iritsi, baina, eragindago uztartze irekiari esker, Mehrtens 3-6ko markagailua ezarri zuen.

Springboksek ez zute atzera egin, eta 8 minutura, aukera bikaina izan zuten entseia egiteko, entseu lorraino iritsiz aurrerariak baina baloia lurrean jartzera iritsi gabe. Segidan uztartze bildua euren alde eta zigor kolpea, Stransky gauzatu: 6-6. Afrikarrek gehiago jokatu zuten

zeelandarren zelaiaren, baina zati hau orekatua izan zen. Stransky eta Mehrtens arteko lehia izan zen nagusi. Atsedenera, 9-6 aurretik Springboksak.

ZELANDARRIN ERASOEN ETEKINIK EZ Bigarren zatian erasoko asmoarekin ekin zioten All Blacksek, eta lehen minutua bete baino lehen Mehrtens Dropa gauzatu saiatu zen, lortu ez bazuen ere. Zati honetan gehiago jokatu zuten beltzek eskura, batez ere Lomu erdialdetik sarraraziz hegaleko postua utzita. Buncek eta Littlek ere, saiakera bat baino gehiago egin zuten.

Lomuk metroak egitea lortzen zuten, baina ez zuen laguntzarik jasotzen. Horrela, aurretik aurreko lehia izan zuten joko zabaltzaileek eta Joubertek. Mehrtensesk eskura izan zuten garaipena 78. minutuan; hagetara jaurti eta huts egin zuten, orde, zigor kolpe erraza. Neurketa 9-9ko markagailuarekin amaitu zen.

Hamar minutuko bi zati jokatu ziren, eta berriro oreka nagusitu. Puntuak jaurtiketen bidez egin behar izan zituzten, defentsek ez baitzuten uzten entseurik egiten. Azkenean, ordea, 15. puntua egin zuen Joel Stransky Dropa gauzatu, eta Webb Ellis III. Kopu afrikarrentzat.

DEBA Hondartzako tren bat dator berriz ere!
Ermua-Eibar-Deba
Tren bat orduero

Udako ordutegiak Galde ezazu zure geltokian **EUSKOTRENBIDEAK**